

Pedro de Yrizar jaunaren omenez berba batzuk

Ricardo Badiola

Hona hemen gure omenduari buruz egindako gogoeta batzuk. Pedro azkoitiarra dogu eta urte honetan 89 urte beteko ditu.

A.- UMAROA:

- 1910.eko abuztu/agorrilaren 11an, Azkoitiko herrian jaioa dogu eta bi urte gaz Madrilera eroan eben gurasoek. Familian sei nebarreba izan dira eta Pedro dogu gazteena eta bizirik dirauan bakarra.

- Denbora haretan, dirudienez, umeak ez ziren gaur egunean moduan hiru lau urte gaz eskolara joaten. Umeak olgetan ibiltzen ziran baserri eta inguruetan: pelotaka, eskola-eliza inguruetan. Orduko denporapasak honakook ditugu: fidoka: neska-mutikoak bata bestea harra-

patzen; erbika: ehizan, hau da, batzuk txakurrena egiten eta beste batzuk erbi papera betetan, pertsona nagusiak imitatu gurarik...

Eta gero...:

B.- IKASKETAK:

Ba, bi urtegaz Pedro Madrilen daukagu. Eta zortzigaz Saint-Maur (Damas Negras) deritxon ikastetxean. Ikastetxe honetan lau urte egiten ditu. Mutiko zuhurra zala dinoe bera ezagutu ebenek. Klaseetan fina eta diziplinatua. Klaseko diziplina eta ikasteak ez eutsoen arazo modurik sortzen. Madrilen gaztelania ikasi eta erabiliagatik ez eban Axularren berbetarik ahaztu. Pedroren esanetan bera erdaldun barria da, ama Asturiasko izanda be. Pedrok Azkoitia eta inguruetan ikasi eta landu eban bere euskera. Etxetik aparte ikaskide-ekaz euskeraz egiten ebalá ?

Jarraiko bi urteotan, 1923 eta 1924.ean, Pedrok 13, 14 eta 15 urte eukazala ikastetxe pribatu batean ikasi eban, San Ignazio eritxon ikastetxean; baina San Ignazio izena izanda be, ez zan jesuitena, berak hau guztiau azpimarratu gura izan deusku. Orduko batxilergoa izango ete zalakoan nago. Ikastetxe honetan be estudiante bikaina zala eta, diziplina gehienetan, goi mailako notak atarutzen ebazala, jakin izan dogu. Orduan dagoeneko nabarmentzen hasia zan gure Pedroren zuhurtzia, gero –Unibertsitate mailako ikasketetan– nabarmenduko jakularik.

Unibertsitateko ikasketak direla eta, hara hemen buruturiko ikasketak eta titulu batzuk:

I.- Ingeniari Industrial titulazioa Madrileko Ingeniari Industrialen Goi Mailako Eskolan Doktoradutza burutu eta eskuratua.

II.- Geografia eremuan Ingeniaritza mailan Doktore maila dauka.

III.- Madrileko Unibertsitate Zentralean Zientzi Ekonomiketan Lizentziaduna, baina esparru honetan aparteko saria jaso eban burururiko ikasketak bikainak izan ziren eta. Ondoren Zientzia eremuan Doktoradutza diziplinak ondu zituen eta, bakar-bakarrik, tesia amaitzeke laga eban.

IV.- Egunotan jakin izan dogu Pedrok daukan zaletasuna musika-rekiko. Gazte denporan Madrilera joaten ziran hainbat musika jolek beren partituretan eskaintza berezia emona daukate. Asturiasen, beharrean ebilela, arratsalde askotan piano jotzen emoten zituen orduak eta orduak, Pedroren seme nagusiak azaldu deuskunez.

C.- BEHARRA ETA BIZIBIDEA:

I.- Espainian Estatuko Hazienda / Ogasun Ministeritzan, Ingeniari Industrial eremuan behar egin eban hainbat urtez.

II.- Estatuko Zerga eta Finantzia esparruetako inspektoretzan.

III.- Espainiako Bankuko Bileteen /Tinbreen beharlekuko burua izan zan, hau da, Tinbre eta Moneta Nazionaleko lantegian

IV.- Ingeniari Industrialen Goi Maila Eskolako Ekonomia irakaslea Madrileko Unibertsitatean.

D.- IDAZLARI EDO ERREDAKTORE NON:

I.- *Ciencia Aplicada* deritxon aldizkarian –Juan de la Cierva Patronatukoa, Ikerketa Zientifikoetako Goi Mailako Kontseilukoa izanik–, idazlari edo erredatarea.

II.- *Racionalización* aldizkarian –Juan de la Cierva Patronatukoa– idazlari edo erredatarea.

E.- ERAKUNDEETAKO KIDE:

Pedro hainbat erakunde, talde eta alkarteko kidea dogu, baina guk Euskal Herriaz zerikusia daukienak aitatuko ditugu:

I.- Euskaltzaindiko kidea:

I.1.- Euskaltzain urgazlea: 1947-III-28an izendatua

I.2.- Euskaltzain ohorezkoa: 1987-VII-24an onartua

II.- Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País/ Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko kidea.

F.- ARGITARATURIKO IKERKETAK:

Gure omenduak aldizkari, liburuki, prentsa eta abarretan parte hartu deusku, baina guk hemen bakan batzuk aitatuko ditugu, alegia:

I.- *Euskera* agerkarian:

1.- 1958, III, 11-16 orr. : "Sobre la *b*- de las terceras personas del imperativo"

- 2.- 1975, XX, 407-451 : "Aditza euskalki guzietan arloaren adieraztea"
- 3.- 1984, XXIX, 755-782: "Sobre los trabajos: I.M. Veshapidge.- Vzaimochereduiushchiesia glagol'nye osnovy soznacheniem "byt" v Baskskom yazyke; Yu.VI.Zytsar'.- O baskskom glagole "byt".

II.- Boletín de la *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País / BRSVAP.*

- 1.- 1947, III, 427-494 eta 1948, IV, 407-491: "Formación y desarrollo del verbo auxiliar vasco"
- 2.- 1949, V, 273-275 : "Sobre los nombres de hermano y hermana"
- 3.- 1950, VI, 3-42; 255-291; 1951, VII, 123-176; 353-391: "Sobre el carácter pasivo del verbo transitivo o del verbo de acción, en el vascuence y en algunas lenguas del Norte de América"
- 4.- 1951, VII, 397-405: "C.C.Uhlenbeck"
- 5.- 1955, XV, 375-385: "Sobre la exploración lingüística del País Vasco"
- 6.- 1956, XII, 34-38: "Sobre la exploración lingüística del País Vasco (dialecto vizcaino)"
- 7.- 1956, XII, 143-168: "Atlas lingüístico del País Vasco. Cuestionario de formas verbales"
- 8.- 1957, XIII, 18-21: "Algunas observaciones del profesor H. Gavel referentes al artículo 'Sobre la exploración lingüística del País Vasco' "
- 9.- 1960,XVI, 3-14: "El Príncipe Luis Luciano Bonaparte y su obra"
- 10.- 1971, V,115-117: "Sobre la concordancias morfológicas de la Lengua Vasca con las lenguas caucásicas y con otras lenguas"

- 11.- 1972, XXVIII, 125-168: "Observaciones sobre la afijación en la Lengua Vasca"
- 12.- 1973.- XXIX, 3- 78 : "Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico"
- 13.- 1981, XXXVII, 303-305: "Disquisiciones lingüísticas azcoitianas"

III.- *ASJU*:

- 1.- 1955, II, 137-147: "Sobre la exploración lingüística del País Vasco"
- 2.- 1973, VII, 3-36: "Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo"
- 3.- 1978-79, XII-XIII, 3-13: "Sobre el pronombre personal *i(r)ek* y las formas verbales correspondientes"
- 4.- 1980, XIV, 25-85: "Sobre las formas verbales vizcainas con objeto indirecto de segunda persona"
- 5.- 1981, XV, 3-74: "Sobre algunas formas verbales alocutivas no objetivas vascas y su comparación con las correspondientes objetivas. Distinto comportamiento de los dialectos"
- 6.- 1988: *ASJU*, *gehigarriak*, XIV : "Sobre la extensión del subjuntivo y del potencial vizcaínos" eta *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Pars altera, 1093-1104. Gipuzkoako Foru Diputazioa, 1988.

G.- BESTE ALDIZKARI BATZUTAN:

Hona hemen, bestalde, herri mailako aldizkari batzutan Pedro partaidetza izan danaren izen batzuk:

- 1.- *Deba*, Udaberria : "Observaciones sobre las formas verbales de Deva", 1986, 27.
- 2.- *ELE*: "Bonaparteren sailkapenari buruz", 1987, Bizkaiko AEK, 3.zenbakiduna, 97-104.
- 3.- *Hispanica Posnaniensia*: (Nazioarteko aldizkaria: Uniwersytet Adama Mickiewicza): "Sobre la evolución de la Lengua Vasca", 1988, lehen zenbakia, 185-198. Poznań / Polonia.
- 4.- Txosten berezia: "Los dialectos de la Lengua Vasca". 1989.urtean Hispania Posnaniensia Simposyumean aurkezturikoa.

H.- BESTE ZENBAIT ARGITALPEN:

Eta amaitzeko, esparru potolo eta sendoena jarriko dogu, alegia:

- 1.- *Lekuona'tar Manuel jaunaren omenezko idazki-bilduma*, III, Kardabaraz Bazkuna, 345-354: "La alocución en el verbo vasco. Su expresión en los distintos dialectos y variedades"
- 2.- *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario Enciclopédico Vasco*, IX. liburukia, 1959, 217-237: "Los dialectos y variedades del vascuence"; eta XXII. liburukia: "Laburdi. Lengua- El dialecto labortano", 182-184.
- 3.- *Homenaje a Don Odón de Apraiz*. "Sobre las formas verbales alocutivas del pretérito desprovistas de -n final", Consejo de Cultura de Alava, 1981, 407-412.
- 4.- *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*. Gipuzkoako Kutxa Probintziala / Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1981. Liburuki edo tomo bi: 334 eta 428 orrialdedunak.

- 5.- *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. IKER bildumako 2. liburukia: "De(b)e- du(t)e, dai, debie aditz-jokoak gipuzkeraz. Bizkaieraren eragintza". Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B., 1983, 683-688.
- 6.- *Aingeru Yrigaray-ri omenaldia*. " Aparición y desaparición de las formas verbales en -ako-, -eko-, en el alto navarro meridional". Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos, 1985, 259-290.

I.- EUSKALTZAINDIK, AZKEN ALDIO TAN, ARGITARATU DEUTSOZAN LIBURUKIAK:

- 1.- 1991: *Morfología del verbo auxiliar gipuzcoano (Estudio dialectológico)*. Liburuki edo tomo bi: 618 eta 464 orrialdedunak.
- 2.- 1992: *Morfología del verbo auxiliar vizcaíno (Estudio dialectológico)*. Liburuki bi: 674 eta 558 orrialdedunak.
- 3.- 1992: *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro septentrional (Estudio dialectológico)*. Liburuki bi: 646 eta 624 orrialdedunak.
- 4.- 1992: *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro meridional (Estudio dialectológico)*. 676 orrialde.
- 5.- 1992 : *Morfología del verbo auxiliar roncalés (Estudio dialectológico)*. 142 orrialde.
- 6.- 1997: *Morfología del verbo auxiliar labortano (Estudio dialectológico)*. 752 orrialde.
- 7.- 1999: *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro occidental (Estudio dialectológico)*. 664 orrialde.

Eta azken argitalpenokaz jarraiturik, dagoeneko amaitzear daukaz jarraiko liburukiok, alegia:

- 1.- *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental* (*Estudio dialectológico*). Jakin ahal izan dogunez, nafarroako ekialde eremuko liburukiak hiru izango dira.
- 2.- Eta azkenik, Zuberoako berbetari datxekonez beste liburuki bat.

Beraz, gure Pedro Yrizar jaunak, bene-benetan ondo merezia dauka *Mendebalde* alkarreak egiten deutson omenaldiño hau.

“Sikeran be, baten bat gogoratzen danien nire aitagaz” adierazi deusku Pedroren seme zaharrena dan Pedro Yrizar Velasco jaunak.

Esan dot.